

Asko ugaritu dira erdaratik euskarara –eta alderantziz– itzulpenak egiteko sarean dauden tresnak. Lakuako Gobernuak aurkeztu berri du azkena; baina ez da bakarra. Tresna hauen lanketan buru belarri diharduten profesionalak bildu ditugu etorkizunera begira euskarak eta itzulpengintza automatikoak dituzten erronken inguruan jarduteko.

Testua: **Julene Larrañaga**
Argazkiak: **Conny Beyreuther**

ITZULTZAILE AUTOMATIKOAK



Ritxi Lizartza Maramara itzulpen enpresako arduradunak itzultzaile automatikoen aldeko jarrera eduki beharra aldarrikatzen du, nahiz eta itzultzaileen lan egiteko modua aldatuko duten. Erreportajearen aperturan IXAkoak ageri dira.

Komunikazio bide berriak direla-eta, pertsonen arteko harremanak ez ezik, hizkuntzen arteko hartu-emanak ere aldatu egin dira azken urteotan. Izan ere, bizi garen aro global honetan, gurea ez den beste hizkuntza batzuekiko kontaktua inoiz baino maizago izaten dugu, interneten bidez ere. Gaur egun, gero eta gehiago kontsultatzen dugu atzerriko datoren informazioa, eta informazio hori ulergarri bilakatzeko nabarmen ugaritu eta garatu dira sareko itzultzaile automatikoak. Hasieran, asko ziren tresna hauek begi onez ikusi ez zituztenak, eskaintzen zuten kalitate eskasa erabiliz aurkako argudio nagusiztat. Baina badirudi urtetik urtera hobekuntza handia izan dutela, eta gerora begira funtsezko tresna bilakatuko omen dira, etengabe haziz doan informazio kopurua kudeatu eta hedatzeko.

Eta euskarari dagokionez, zer? Bada, euskarari ere beharrezkoa zaio itzulpen automatikorako tresnak izatea; alde batetik, euskaldunok beste hizkuntzetako idatziak gure hizkuntzan ulertzeko eta, bestetik, euskarazko produktzioa eraldunengana iritsi ahal izateko. Gainera, eta Euskal Herrian bizi dugun errealitate elebidunean, are garrantzi handiagoa hartzen dute tresnak. Egun dauden euskarazko itzultzaile automatikoen errealitateaz eta alor honetan dauden zailtasun eta erronkez hitz egin dugu gaia gertutik ezagutzen duten profesionalekin.

IXA eta ELEKA, aitzindariak. Gaur egun badira gaztelania eta euskararen arteko itzultzaile automatikoak garatzen ari diren enpresak, baina gutxi dira kode irekiko tresnak garatzen dituztenak, hau da, edozeinek doan deskargatu eta erabili ditzakeenak. Horietako bat Opentrad da (www.opentrad.com). Opentrad itzultzailearen azpian bi teknologia daude: EHUko IXA Taldean garatutako Matxin (gaztelania-euskararako) eta Apertium (gaztelania-katalana-galegoa eta abarrerako). ELEKA Ingeniaritza Linguistikorako enpresako kide diren Elena Garcia eta Itziar Cortesen arabera, bi teknologia hauek «erregelatan oinarritutako itzulpen automatikoko sistemak dira, hau da, iturburu eta helburu-hizkuntzarekin zuzenean lotutako baliabideak erabiltzen dituzte. Logikoki, antzeko hizkuntzen arteko itzulpen automatiko on bat lortzea errazagoa da: 'La voz de Galicia' ren bertsio digitala galegoz Opentradekin sortua da, adibidez; edota Donostia Turismo webgunean, katalanezko bertsioa Opentradekin sortzen da, automatikoki» (ikus <http://www.sansebastianturismo.com>), azaldu dute.

Izan ere, gramatikalki eta morfologikoki antzekoak diren hizkuntza bikoteen arteko itzulpenak oso onak izan daitezke, gaztelania-katalana edo gaztelania-ga-

legoa kasu. Baina euskararen kasuan zailtasuna handiagoa da, eta kalitatea zalantzarriagoa. Hala azaldu dute Garciak eta Cortesek: «Morfologikoki konplexua den hizkuntza bat izanik, eta hizkuntzari dagozkion baliabideak sortzeke dauden honetan, zailagoa da euskarazko itzulpen automatikoko sistema eraginkor eta kalitatezkoa lortzea. Hala ere, adituek diotenez, 2015-2020 urte artean itzultzaile automatikoen kalitatea nabarmen hobetzea lortuko omen da, baita euskarazkoen kasuan ere», argitu dute.

Sarean arakatu eta euskarazko itzultzaile desberdinekin egin dezakegu topo gaur egun. www.erderatu.eu, adibidez, euskaratik gaztelaniarako itzulpenak egiteko aukera eskaintzen duen tresna da. Google-n bilatzaileak ere euskararako itzultzailea eskaintzen du 2010az geroztik, Google Translate tresnaren barnean. Ritxi Lizartza Maramara itzulpen enpresako arduradunak dienez, «gaur egun, enpresa askok Googleren itzultzaile automatikoa erabiltzen dute, baina eskaintzen duen kalitatea ez da ona, informazio orokorra ematea baitu helburu, eta ez itzulpenaren kalitatea eta erabateko ulergarritasuna bermatzea». Izan ere, Googlek erabiltzen duen sistema guztiz estatistikoa da, hau da, inolako jakintza linguistikorik gabekoa. Beste era batera esanda: gizakiok egindako itzulpenetatik ikasten duen itzultzailea da. IXA taldeko Iñaki Alegriaren eta Gorka Labakaren aburuz, «corpusa (itzulpenen bilduma) izanda, edonork sor ditzake halako itzultzaileak, baina euskararen kasuan kalitatezko corpusa biltzea da arazorik handiena».

Perfekziotik urrun. Lakuako Gobernuak gaztele-razko testuak unean euskarara itzultzeko programa aurkeztu du berriki. Herritar guztien eskura dagoen itzultzaile honen bidez (www.itzultzailea.euskadi.net), 1.024 karaktere baino gutxiagoko testuak itzul ditzake erabiltzaileak, eta baita webguneak ere. Dokumentu luzeagoak itzultzeko, ordea, Eusko Jaurlaritzako intranetean soilik izango dute erabilgarri programa. Lourdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordearen esanetan, aurki bi itzulpen noranzko gehitu nahi dizkiote itzultzaileari: euskaratik gaztelara eta ingelesetik euskarara. 2013ko udarako zerbitzu horiek indarrean egotea espero du Auzmendik.

Dena den, tresna honek egindako itzulpenak ez dira perfektuak, ezta gutxiago ere. «Itzultzaile guztiek dituzte akatsak –azaldu du Auzmendik–, eta honako hau ere ez da salbuespena; laguntza tresna bat baino ez da. Itzulitako testua argitaratu edo aurkezteko asmorik izanez gero aurretik giza zuzentzaile batek aztertu eta zuzendu beharko ditu testuak». Halaber, tresna gero eta gehiago erabilia, itzulpenaren kalitatea hobetzen



Elena Garcia eta Itziar Cortes ageri dira behean, hauek ere 7K-ko argazkilariak proposaturiko jokoan murgilduta; makinen eta pertsonen arteko komunikazioa ahalbidetzeko teknologiak garatzen dituen ELEKA enpresako kideak dira Garcia eta Cortes.

rrerapauso handiak eman dira: erregeletan oinarritutako itzultzaileak sortzetik teknologiak konbinatzera pasa gara, hau da, hibridoak sortzera, erregela gramatikalak eta estatistika bateratuz», azaldu du Alegriak.

Honekin batera, Interneten konexio eta erabilera masiboak halabeharrez sortu du sarean hizkuntzak tratatzeko sistema automatikoen beharra. Zentzu horretan, digitalizazioa funtsezkoa izan da, IXAko kideen aburuz: «Digitalizaziorik gabe ez zen seguruenik itzulpen automatikorik existituko. Gaur egungo itzultzaile asko estatistikoak dira; itzultzaile hauek gizakiak egindako itzulpenetan oinarritzen dira, estatistikak lortu eta bi hizkuntzen arteko baliokidetasunak ikasteko. Beraz, testu hauek ez lirakeke eskuragarri izango azken urteetan ordenagailuek izan duten arrakastarengatik izango ez balitz», dio irmoki Alegriak. Era berean, itzulpen automatikoen garapenerako giltzarria den beste faktore bat azpimarratu du Alegriak: «Globalizazioa izango da, seguruenik, tresna hauen arrakasta ekarri duen faktore erabakigarria. Izan ere, gaur egungo gizarteak munduko beste puntako gertaeretan interesa du, eta ahal den kasuetan informazio hori lehen eskutik lortu nahi du. Nahi hori izan da itzulpen automatikoen zabalkundearen motibo nagusia».

Begi bistako abantailak. Itzultzaile automatikoen izan ditzaketen abantailak buruz galdetuta, azkartasuna eta kostu murrizta dira gehien aipatzen direnak. Izan ere, tresna erabilgarri eta eraginkorra izateaz gain, komunikazio prozesuetan dirua aurrezteko ere balio dezakete. Alegriaren iritziz, «Interneten itzultzaile automatikoen bitartez itzultzen diren testu guztiak eskuz itzuli beharko balira, giza-itzultzaileak ezingo lioke eskaerari erantzun, ezta erabiltzaileak faktura ordaindu ere». ELEKA Ingeniaritza Linguistikoak baliatutako datuen arabera, Europar Batasunak mila milioi euro inguru gastatu zituen 2011. urtean itzulpenetan. Hain zuzen ere, mundu mailan itzulpen gehien behar dituen erakundea da Europar Batasuna. Bere aldetik, DGTk (Direction Générale de la Traduction delakoak) 1.750 itzultzaile izan zituen nominan pasa den urtean. Pertsona horiek, 2011n bakarrik, 2.1 milioi orrialde itzuli zituzten. Europar Batasunaren webgune ofizialek (*europa.eu* domeinukoak bakarrik hartuta) 7 milioi orrialde dituzte. Horiek Europar Batasunak onartzen dituen 23 hizkuntza ofizialetera itzuli nahiko balira, bederatzi mila itzultzaile beharko lirakeke urtean.

Denbora eta lana aurreztearekin batera, Euskal Herrian bizi dugun errealitate eleanitza kudeatzeko ere tresna egokia izan liteke itzulpen automatikoa. Lourdes Auzmendik administrazio publikoa jarri du adibidetzat: «Euskal Autonomia Erkidegoan, legeak agindurik, dokumentu guztiek bi hizkuntza ofizialean



joango dela jakinarazi du Lourdes Auzmendik, eta horrek, bere esanetan, epe labur-ertainera interneten jarri den itzulpen-muga –esan bezala, 1.024 karakterekoa– handitzea ere ekarriko du.

Kontuak kontu, badirudi itzulitako testuen masa handiak lortzea dela euskarazko itzultzaileen erronkarik handiena, hots, corpus handiak osatzea. Lourdes Auzmendik argi dauka: «Gaur egun Interneten dauden euskarazko itzultzaileak ez dira oso onak, eta hori gauzak alderantziz egin direlako da. Alegia, saiatu dira itzulpen automatikorako tresnak sortzen oso corpus linguistiko txikiarekin. Guk alderantzizko bidea egin dugu: lehenago Itzulpen Memorien Bankua lantzen hasi ginen eta gero itzultzaile automatikoa landu da. Nekagarriago eta luzeagoa da, eta zeresanik ez, garestiagoa –Gobernuak 1,6 milioi euro bideratu zituen iaz proiektu honetarako– baina aurrera begira askoz eragingarriagoa», uste du Auzmendik.

Urte askotako lana. Itzulpen automatikoa landu eta garatzearen ideia aspalditik datorren kontua da, baina denbora behar izan da sistema egokiak garatzeko. Orain dela bi hamarkada inguru itzulpen automatikoen gainera interesa piztu zen, baina orduko ordenagailuek ez zituzten eskaintzen gaur egun eskura ditugun baliabideak. IXA Taldeko Alegriaren hitzetan, okerreko ikuspuntutik hasi zen itzulpen automatikoen gaia lantzen: «Hasi batean itzulpenak hitzez hitz egin zitezkeela pentsatu zen, eta hiztegi erraldoi bat sortzarekin nahikoa izango zela; baina oker geunden. Gaia landu ahala, hizkuntzen arteko egiturazko desberdintasunak antzematen hasi ginen. Horietako batzuk begi-bistakoak dira: hitzen ordena desberdinak, hitz bera testuinguruaren arabera modu desberdinean itzuli beharra, are gehiago, zenbait kasutan ez da nahikoa testuan agertzen dena itzulpen egokia sortu ahal izateko... Baina azken urteotan au-

ITZULTZAILE AUTOMATIKOAK

IXA taldeak 20 urte baino gehiago daramatza hizkuntzaren tratamendu automatikoa lantzen. Taldeko zenbait kide ageri dira ezkerrean, EHUko Leioako Campusean.

egon behar dute. Horrek esan nahi du langile askok horretan luzaz jardun behar dutela egunero. Beraz, itzultzaile automatikoak haien lana arintzera datoz», Auzmendiren iduriko.

Itzultzaile zuzentzaileak. Abantailak abantaila, era guztietako iritzia entzun izan dira itzultzaile automatikoen inguruan, eta ez beti onak. Giza itzultzaileen artean, esaterako, asko dira lanabes hau mehatxu moduan ikusten dutenak. Itzultzaile automatikoak giza itzultzaileen lana ordezkatuko ote duen zalantza betidanik egon da Alegriaren ustez, «baina aspaldi ikusi zen ez dela halakorik gertatuko, ez behintzat epe labur-ertainean. Hori bai, dagoeneko errealitate bat da itzultzaileen lan egiteko modua aldatzen ari dela: gero eta gehiago, itzulpena hutsetik egin beharrean, itzulpen memorietatik edo itzultzaile automatikoaren irteeran oinarrituz egingo dute lan giza itzultzaileek», dio Alegriak. Ritxi Lizartza Maramara itzulpen enpresako arduradunak ere etorkizun hurbilean gauzak aldatuko direla uste du: «Itzultzaileen eta zuzentzaileen lana aldatuko da eta lehen lan bat egiteko behar zen denbora tartea laburtu, batez ere prozesadore automatiko batek egin dezakeena gizakiak egin beharrik izango ez duelako. Horrez gain, itzulpen-lana, hainbatetan, zuzenketa edo gainbegiratze-lan bihurtuko da. Baina, edozein kasutan, gizakiaren lana beharrezkoa izango da testu guztietan». Azkenik, itzulpen automatikoen testu dibulgatiboei soilik eragiten dietela ohartarazi nahi izan du Lourdes Auzmendik, «inondik ere ez, literaturari, adibidez. Hala, beti geldituko da zirrikituren bat norberaren estiloa edo sormena lantzeko».

Noizko euskarazko itzultzaile bakarra? Bistan denez, Euskal Herrian bat baino gehiago dira euskarazko itzultzaile automatikoaren alorrean lanean dihardutenak; bakoitzak bere aldetik, neurri batean. Batasun falta hau dela-eta, eta euskarak dituen ezaugarriak direla medio (beste hizkuntzekiko ahaidetasunik eza, eta baliabide urritasuna), Alegriak ezinbestekotzat jotzen du «erakunde desberdinen artean indarrak batzea etorkizunean kalitatezko itzultzaile bat lortu nahi bada. Horretarako, gure apustua kode irekia da, egingdako lanaren emaitzak, batez ere erakunde publikoetatik datozenak, beste edonork erabil eta hobetu ditzan», aldarrikatu du Alegriak. Euskarazko itzultzaile automatiko on bat egiteko, zalantzarik gabe, dirua behar dela azpimarratu dute ELEKATik Elena Garciak eta Itziar Cortesek: «Ondo prestatutako hizkuntzalari konputazionalak, informatikariak... baina batez ere denbora eta diru asko behar da. Beraz, euskara bezalako hizkuntza txiki baten kasuan, erakundeen arteko lan-kidetzak ezinbestekoa izango da», deritzote.

Elkarlanaz gain, eta aurrera begira euskarazko itzultzaile automatikoen dituzten erronken artean, kalitatea bermatzea ezinbestekotzat jotzen du Auzmendik. «Momentu honetan, Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile automatikoaren bidez lor dezakegun zuzentasun maila %65ekoa da. Halaber, banku publikoaren tamaina handitzen den heinean, portzentaje hori ere handituz joango da, betiere akats kopuru txiki bat izan dezakeen arren», dio Auzmendik. Iñaki Alegriak eta Gorka Labakak, bestalde, aurrera begirako ardura nagusia itzultzaile automatikoen erabilera desegokiak atzeman eta baztertzeko izan behar duela aldarrikatu

dute: «Erabilera egokia emanez gero, euskarazko testuen sorrera erraztuko da, eta modu horretan, bestela euskara kontuan hartuko ez luketen enpresa edo erakundeak animatu daitezke beraien edukiak euskarara itzultzera. Eta erdaldunak, munduko edozein tokitatik, euskaraz sortutako edukietara hurbiltzea ere erraz dezake», gaineratu dute IXAko kideek.

Zubi bat ulermenera. Orain arte eremu urriko hizkuntzak hitz egiten ditugunok ahaleginak egin behar genituen zabalduago zeuden hizkuntzetan idatzitako testuak irakurri eta ulertzeko. Baina gauzak aldatzen

doaz, eta laster, kontrako bidea ere posible izango da: euskaraz jakin gabe gaztelania, frantsesa, ingelesa edo beste edozein hizkuntza dakienak aukera izango du euskarazko sormena ezagutzeko. Orain arteko norabide bakarreko bidea joan-etorriko bidea bihurtuko da, ulermenari ateak parez-pare irekiz. Badirudi gero eta gertuago dagoela euskaldunok euskaraz idatzi eta munduko beste edozein hizkuntzen bidez ulertuko gaituzten eguna. Teknologia tresna hobekak sortzen eta garatzen jarraituko du, ziur, baina erronkak bere horretan jarraitzen du: euskarazko edukiak sortzea guztion ardura izango da, orain eta beti. •

